

17 Lagun onak

Etxean txakur bat, katu bat eta sagu bat bizi ziren.

Etxeko gizonak hiru hezur ematen zizkion egunero txakurrari.

Etxeko andreak, berriz, hiru sardina katuari.

Saguari, ordea, ez zion inork ezer ematen. Eta, horregatik, hiru gazta zatiren bila aritzen zen egunero.

Sagua gazta bila irteten zenean, katua hura harrapatzen saiatzen zen. Horrek gogaitu egiten zuen txakurra eta katuari segika hasten zen. Egun osoa korrika ematen zuten; katua saguaren atzetik eta txakurra katuaren atzetik.

Behin batean, baina, zera esan zuen txakurrak:

–Etxe berean bizi gara; lagun izan behar genuke.

–Baina nik sagua jan nahi dut –esan zuen katuak.

Eta txakurrak erantzun:

–Hiru sardina dituzu egunero.

Zertarako jan sagua?

Harrezkero, zoriontsu bizi dira hirurak elkarrekin:

Etxeko gizonak hiru hezur ematen dizkio txakurrari.

Etxeko andreak, berriz, hiru sardina katuari.

Eta txakurrak eta katuak hiru gazta zati bilatzen dizkiote saguari.



1. Inguratu etxean bizi ziren hiru animalien izenak.

txakurra / sardina / sagua / katua

2. Lotu ezkerreko esaldiak eskuineko hitzekin.

- | | |
|--|--------------|
| Gizonak hiru hezur ematen zizkion • | • katuari |
| Andreak hiru sardina ematen zizkion • | • saguari |
| Hasieran, inork ez zion jatekorik ematen • | • txakurrari |


3. Osatu esaldiak:

..... katuaren atzetik ibiltzen zen.

..... saguaren atzetik ibiltzen zen.

4. Idatzi E egia bada eta G gezurra bada.

- ☐ Hirurak lagun izatea proposatu zuen katuak.
- ☐ Katuak sagua jan nahi zuen.
- ☐ Sagua ez jateko esan zion txakurrak katuari.
- ☐ Oraindik borrokan jarraitzen dute, bata besteari segika.



5. Nola amaitu da ipuina? Osatu.

Hiru animaliak bizi dira elkarrekin.

eta hiru zati ematen dizkiote
saguari.

Ebaluazioa

- Zuzendu zeure ariketak.
- Margotu berdez erantzun zuzen bakoitzari dagokion laukia.

1

2

3

4

5